

KOSTUEN EGITURA

Argi dago, gure egitasmoa aurrera ateratzeko kostu ugari pairatu beharko ditugula. Gainera, gure egitasmoan ez dugu produktu material bat salduko, ondorioz, hasieran izango ditugu gastu garrantzitsuenak, behin proiektua martxan jarrita dagoenean kostuak askoz ere baxuagoak izango dira.



Izango ditugun kostuak honako hauek izango dira: hondakinak biltzeko poltsak, eskularruak, publizitatea eta hondakinak garraiatzeko kamioia dira; horrez gain, ez dugu lokalik alokatuko, ez baitugu horretarako beharrik ikusten.

Hasieran izango dugun lehen kostua web gunea sortzea izango da; bertatik aurrera abiatuko gara gure erabiltzaileekin kontaktuan jartzen eta dena webgunetik hasiko da martxan. Gutxi gorabehera, horrek 1000€ inguruko kostua izango du.

Aipatzekoa da, lehen esan bezala, produktu materialik ez dugunez eskaintzen, zerbitzu bat baizik, kostu ugari ez ditugula, hondartzen garbiketari lagunduko digutenak eta egitasmoa sustatzeko baliabideak besterik ez. Dena ulerterrazagoa egiteko, taula batean txertatu ditugu kostuak, hauen izaera (finkoak ala aldakorrek diren), eta gutxi gora beherako aurrekontu bat. Hau kontuan izanik, honako hauek izango dira gure egitasmoak izango dituen gastuak: hasierako gastuak, kostu finkoak, kostu aldakorrek:



HASIERAKO GASTUAK	
Kostua	Prezioa
Web-gunea (lehen hilabetean)	800 - 1.000€

KOSTU FINKOAK (hilabetero)	
Kostua	Prezioa
Maddon publizitatea	350€-ko aurrekontua
San Marco	200€-ko aurrekontua
Teledonosti	300€-ko aurrekontua

GUZTIRA:	850€
----------	------

KOSTU ALDAKORRAK (hilabetero)	
Kostua	Prezioa
Poltsak	2,47€ (15 poltsek) (unitateko 0,16€)
Eskularruak	50€ (unitateko 0,5€)
GUZTIRA:	52,47€

Taula hauek kontuan izanik aurreikusi dezakegu, behin egitasmoari hasiera emanda, gutxi gora behera hilabetero 902,47€-ko gastuak izango ditugula.